

Aikor!

txorierriko aldizkaria

ZORIONAK
AikOR!

Aitor Larrazabal:
"Jendea animatu
behar dogu
euskeraz berba
egiteko"



GZ PRINTEK

2002. urtean lanean
jarraituko dugu irudirik
onena emateko

Lorionak eta Urte Berri On

San Martin, 153 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 08 59
Faxa: 94 452 12 60

Aikor jaio da, Txorierriko euskaldunon arteko lotura barria

Bada urtebete baino gehiago aldizkari honen lehenengo oinarriak ipinten hasi ginala. Eurotariko bat aldizkariaren ardurea hartu dauan erakundea sortzea izan da: TOTOAN Txorierriko euskara elkartearen federazioa. Bertara ARREKIKILI, LAGATZU eta ZORRIZKETAN euskara elkarteak batu dira orain arte, hau da, Larrabetzu, Zamudio eta Lezamako euskara elkarteak, baina Txorierrin dagozan beste euskara elkarteak -baita aurrerantzean sor leitekezenak be- laster gugaz egongo diralakoa gagoz. Totoan, izan be, haxe da: auzoak alkatu eta beharrak alkarregaz egitea. Federazioaren izenak, beraz, geure behar egiteko modu horren barri emon gura dau.

AIKOR! aldizkaria, beraz, euskerearen aldeko beste erreminta bat izango dogu, baina bere eginkizuna ez dogu

horretara mugatu gura; aldizkari honek Txorierriko herritarroei alkarren barri jakiteko eta gure herrien arteko hartu-emonak sendotzeko erea emongo deusku.

Danon artean egitekoa

Geure apustua profesionalizazioaren aldekoa izan da. Horrek, oster, ez dau esan gura kolaborazioa aterik itxiko jakenik. Aldizkari hau danontzat irigita dago eta danon artean egitea gura geunke. Horregaitik, lehenengo ale honetatik gonbidatu gura zaituegu bertan parte hartzera.


Aurkezpen honetan ezin dogu aitatu barik itxi Euskara Elkartearen eta Herri Aldizkariaren Topaguneak emon deuskun laguntasun handia. Hareek izan dira hasierako geure pauso baldarrak arteztu dituenak. Hartu daiela geure esker ona euren pazientziagaitik.

Hilero-hilero

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Sailari be eskerrak emon beharrean gagoz, proiektu hone-

tan hasieratik bertatik sinistu ebelako eta 'AIKOR' egin ahal izateko emondako diru-laguntzagaitik.

Gehiagoko barik, ilusioz beterik egin dogun aldizkari hau zeuen gogokoa be izango dalakoan, hemendik aurrera, hilero-hilero topauko gaituzu zeure etxean, doan.



XABIER GOIENETXE
TOTOAN elkarteko presidentea



Argitaratzailea

TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa.
Tf.:944523447

e-posta: totoan@topagunea.com

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio taldea:

Arantzazu Mendiguren Maite Aranburu

Patxi Gaztelumendi Arrate Diez

Belen Gana Oihana Astobieta

Kolaboratzaileak:

Fernando Olabarrieta Gotzon Barandiaran

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra

Argazkiak: Iñigo Azkona

Publizitate eta administrazioa: Daniel

Inprimategia: Printek SA

Ale kopurua: 4.000



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila

ZER	NON
<i>Eritxia</i>	3
<i>Kultura-aisialdia</i>	4
<i>Gazteak</i>	5
<i>Umeak</i>	6
<i>Kirola</i>	7
<i>Erreportajea</i>	8-9-10
<i>Zer deritzozu?</i>	11
<i>Herriz-herri</i>	12-17
<i>Barri laburrak-agenda</i>	18

• Bertsolaritza

Euskal Herriko Bertso Txapelketaz berbetan

Etxahun Lekue: «Egañari gehien kostatu zaion txapela izan da aurtengoa»

Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalak, nire ustez, danon espektatibak bete zituen. Sorpresak egon ziren, baina ez ziren hain nabarmenak.

Kiniela gehienek Egaña ipintzen zuten txapeldun lez. Hala ere, nire ustez, Egañak lortutako hiru txapeletatik gehien kostatu zaiona azkena izan da, Maialen Lujanbiok saio ikaragarriak egin baitzituen finalean.

Unai Iturriaga be oso ondo egon zen finalean eta argi geratu da ideia jenialenak beti berak botatzen dituela. Igor Elortzak doinu barriak ere erabili zituen arren, ez zuen berak edukitzen duen nibela izan. Sustrai Kolinak, 19 urte gaz eta Iparraldekoa izanda, meritu handia eduki zuen finalean ere.

Bertso saioaren balorazioa egiterakoan ezin da ahaztu Maialen Lujanbiok egin duen lanaren goraipamena, nire ustez, Lujanbiok lortutakoa, bertsotan dabilzan neskak animatzen eta gehitzen lagunduko du. Aipagarria izan zen ere Egañak zenbat errima ezberdin erabili zituen finalean, lan handia egin zuen; beraz, merezita irabazi du.

Freddy Paia: «Maialenek Euskal Herriko txapelduna izateko maila duela erakutsi du»

Aurtengo txapelketan zehar bertsolari batzuek aurreko urteko espektatibak ez zituztela beteko ikusi dela uste dut. Esaterako, txapelketaren hasieran Igor Elortza zen, Bizkaian behintzat, jende

askoren faborittoa eta Egañari erreleboa hartzeko hautagaia. Igorrek, nire ustez, finalean ederto batean egin zuen bertsotan, baina Euskal Herriko final batean bertsotan oso ondo egiteak ez du inola ere garaipena suposatzen. Nik uste dut Elortzak eta Irazuk jendearen presioa pagatu dutela. Iturriaga oso ondo ikusi nuen, Bizkaiko Txapelketan baino hobeto, bertsotan detaile asko eta gaiei ondo egokituz, baina akatsak ere izan zituen. Iturriaga gorago geratuko zela uste nuen, sei garren postuan edo. Sustrai Kolina ere oso ondo ibili zen eta igertzen zitzaion ezer galtzerik ez daukazunean askoz hobeto kantatzen duzula. Maiak aurreko

txapelketatik lanean jarraitu duela erakutsi zuen, lehengoan izandako akatsak zuzendu baitzituen. Egañari gehien kostatu zaion txapela izan da hau eta oraindik bera onena dela argi utzi du. Hala ere, Maialeni hasieratik ikusten zitzaion, semifinaletan kriston saioa egin zuen, gero Hendaian egurra eman zuen eta finalean ere bai. Maialenek erakutsi digu final batean egoteko maila duela eta Euskal Herriko Txapelduna izateko ere bai.



Etxahun Lekue eta Freddy Paia bertsolariek Bertso Txapelketa Nagusiaren finala aztertzen dute.

txorierrik
EUSKALTEGIAK
Egizu berba euskaraz!!!
94 454 39 67

Liliak
Lilak
Erdiko kalea, 2 DERIO
94 454 12 23 / 657 79 75 93

S.A.T. Legu biberoak
Goitioitza 36. Tfnoa: 94 455 61 98, faxa: 94 455 64 17
48196 LEZAMA
*Zorionak eta urte barri on
geure bezero guztioi*

ZAMUDIO-HORRIKO
LURLANGILEN ETXE
COOPERATIBA
AGRICOLA CANABRA
DE ZAMUDIO-DERIO
**ZORIONAK ETA
URTE BARRI ON**

Sondikako Gaztetxean, hainbat joku eta tailer

Sondikako Gaztetxeko lokalean hainbat joku eta tailer ezberdinetan parte hartzeko aukera dute adin guztietako umeek.

Oraingoan, Iñigo eta Eunate monitoreekin egon gara gaztetxearen funtzionamenduari buruz inguruan berbetan.

Udal lokal hauetan ume txikiek ere beren txokoa dute eta, eskolatik irtetea, hainbat umetxo hurbiltzen da honaino jolastu eta lagunekin egoteko. Esther da ume txikien begiralea, beraiekin jolasten du eta hainbat gauza ikasten dute.

Iñigo 14 eta 15 urte bitarteko gazteekin egoten da, hauekin gazteen arduren inguruko txarrik antolatzen ditu. Gaztetxean billarra, futbolina, eta pin-pona ez ezik interneten ibiltzeko aukera ere badute. Honez gain, musika CD-ak hartu eta erabiltzeko aukera eskaintzen zaie gazteei. Gainera, gaztetxeko txartela edukiz gero, hainbat deskontu egiten zaie gazteei. Udalak antolatutako ekimenetan parte hartzean, gaztetxeko kide izateak beharpena du. Ostiraletan zinema ikusteko aukera dago adin honetakoentzat.

*Gazteentzat
interneten
ibiltzeko
aukera
paregabea*



Gazteen entretenimendu eta heziketarako leku aporoposa



Gazteen entretenimendu eta heziketarako leku aporoposa

Logotipo berria

Azaroan gaztetxearen logotipo berria diseinatzeko lehiaketa egin zuten eta aurkeztutako hamazazpi logotipoetatik bat aukeratu behar izan du epaimahaia. Irabazleak 200 euroko saria lortu du.

Eunate 8tik 13ra urte bitarteko umeekin egoten da astean. Hauek tailer ezberdinak antolatzen dituzte eta orain gutxi makramea egiten ikasi dute. Adin honetako gazteentzat lokala bostetatik zazpietara egoten da zabalik. Gehienak ostiraletan agertzen dira, batez ere. Udan ere udalekuak antolatzen dituzte gazte hauentzat.



Guztira, bost monitore arduratzen dira udaleko lokal hauetara hurbiltzen diren gazteei laguntzeaz eta haiekin batera hainbat ekimen prestatzen dute. Hilero, ekitaldi berezi bat egiten dute eta gazteek ilusio handiz hartzen dute euren ideiak beren kabuz aurrera atera ahal izatea.

URI-DENDA

ZORIONAK

ERREBALE, 6 - TEL. 94 455 80 22
LARRABETZU - BIZKAIA

URTE
BARRION

ELEKTRODOMESTIKOAK - I.T.B. - BIDEOA - FERRETERIA



Gabonetan ederto pasatzeko aukera

Gabonetako Jolas Parkeak herri guztietan

Ikasturteko lehenengo hiruhilabetea amaituta, seguruenik, ondo merezitako neguko oporraldia heldu zaizue. Aurten ere, Txorierriko txoko guztietan badaukazue zertan ekin.

Larrabetzun, Hori Bai elkarteak antolatuta, urtarilaren 6an «Kontu kontu zan» antzerkia izango da Azika taldearen eskutik, kultur etxean; ondoren, txokolatada. Abenduaren 29an eta 30ean, zirkora eta futbolera joateko aukera eskaintzen dizue Larrabetzuko Udalak. Egunero 6tik 15 urte bitarteko umeentzat frontoian ekintza desberdinak izango dira eta 4tik 10 urte bitarteko umeentzat ludutekan.

Lezamarrak San Mamesera joango dira abenduaren 29an Euskadiko Selekzioa ikustera. Gabon Zahar egunean, Gazte Kotilloia egingo da Gaztelekuan.

Loiun ere antzerkia antolatu da, abenduaren 28an: «Kaioa eta katua», arrastiko 6:30etan. Urtarrilaren 3an, ludoteka egongo da.

Sondikan, abenduaren 29an, «Txiki Eguna» ospatuko da kiroldegian. Urtarrilaren 3an, Gabonetako Jolas Parkea antolatu du Udalak.

Zamudioztarrak ere Gabonetako Jolas Parkea izango dute abenduaren 26tik 30era bitartean, Kiroldegian. Urtarrilaren 2an, irteera bat egingo da eta hurrengo egunean, berriz, Bilboko Gabonetako Jolas Parkera.

Derion Gabonetako Jolas Parkea urtarilaren 3an egingo da. Biharamunean, «Patinatzen» saioa izango da. Errege bezperan kabalgata ikusteko aukera egongo da. Ondo Paseu!



Adin guztietarako ekitaldi ugari egongo dira



Zerurena Jaietxea

Errementeri Kalea, 22
Tfno.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

kukubiltxo

antzerki taldeak
zoriontzen zaitu
aikor!

urte askotarako!

kukubiltxo antzerki taldea
Errebale 20 - 48195 Larrabetzu - Bizkaia
Telefonoa: 94 455 83 66 / Fax: 94 455 8331
e-mail: kukubiltxo@euskalnet.net www.eskena.com

50 urteren ostean Lezamako Pilota Eskolak bizirik dirau

Lezamako pilota eskolak herriko ohiturari gogor eutsi dio eta Bizkaiko pilota eskolarik zaharrenen artean dago gaur egun. Duela 50 urte herriko pilotazale talde batek sortu ondoren, gero eta zaletu gehiago biltzen ditu, hogeigarren hamarkadan eraikitako herriko frontoian.

Maite Aranburu

Lezamatarren artean esan daiteke erabat sustraiturik dagoela esku pilotarenganako grina. Pilota eskolak bizirik daramatzan 50 urte hauetan, gero eta gazte gehiagok aukeratzten dute esku pilota, futbola alde batera utzita.

Eskola honek urte-etan eginiko ibilbideak Bizkaiko pilota eskolarik garrantzitsuenen mailara aupatu du gaur egun. Horrez gain, aipatzekoa da Lezamako Pilota Eskolak duela hogeitazazpi urte ekin ziola txapelketa garrantzitsuegi- goetan parte hartzen. Orduan hasi zen eskola moduan seriotasunez antolatzen eta pixkanaka-pixkanaka txapelak frontoiko beirarasan biltzen.

Herriko zaharrenek duela berrogeita hamar urte egin ohi zuten bezala, orain ere, Lezamako eskolak afizionatu mailako txapelketak antolatzen ditu Euskal Herriko hainbat herriekin batera. Eskolak 1999an lortu zituen herri arteko titulurik garrantzitsuenak, urte horretan lortu baitzuten herri arteko txapeldun eta txapeldunorde izatea.



Lezamako pilota eskolako umetxoak txapelketa batean.



Gaztetxoek txapelketako sariak jasotzerakoan poz-pozik agertu ziren.

Herri arteko partidu hauek ostiralero jokatzen dira. Herri bakoitzeko hiru pilotarik hartzen dute parte, eta, zaletuen iritziz, txapelketarik garrantzitsuenetariko bat da. Gainera, Lezamako gaztetxoek artean, esku pilotak futbolak baino arrakasta handiagoa lortu du, eskolan gehien aukeratzten den kirola esku pilota da eta.

Momentu honetan, hirurogei gaztek eratzen dute pilotazaleen talde hau. Lau edo bost urterekin hasten dira gaztetxoek pilotan jokatzen, eta gorputzak eutsi arte jokatze-ko era daukate. Gainera, esku pilota neskek zein mutilek egin dezaketen kirola da. Hain zuen ere, Lezamako Pilota Eskolan izan dira jadanik zenbait neska, eta adituen esanetan, pilota mutilek bezain gogor jotzen dute.



REMIREZ INSTALAZIOAK S.L.

ITURGINTZA, HERRIKUNTZA
ETA GAS INSTALAZIOAK
Iberrikotxe, 3
48195 BARRIAKOTZU
T.FON./FAX: 944556296

**ZORIONAK
ETA
URTE BARRI ON!**

Elkarrizketa: Aitor Larrazabal

Athleticen 11 urte egin dituen loiotar honek ez deuto uko egin jaiotzen ikusi duen herrian bizitzeari. Herriagaz daukan lotura estua eta euskerarekiko mirespena bere atal garrantzitsuenak dira, familia eta futbolagaz batera.



Argazkiak: Iñigo Azkona

Noiz eta zelan hasi zinen futbolean?

Txikitatik, nire familian anaje bik beti jokatu deure futbolean eta izan da apur bat familiaren gauza. Txikitatik beti partidua ikusten, ikastetxean, Agustinoan jokatzen hasi nintzen eta handik Lezamara etorri nintzen hamaika urterekin.

Athleticen hainbat urtetan egonda, zein da zure oroitzapenik maiteena?

Nire ustez, oso zaila da lehenengo taldera heltzea. Horregaitik partiduen debuta edo lehen partidua oso espeziala zan. Hamabi denboraldi daroat lehenengo mailan eta beti dago oroitzapen on asko, baina debuta oso inportantea izan zan niretzat. Hemengo mutil bat izatea eta Athleticen jokatzea amets bat da, oso polita da benetan.


Zelako lotura mantentzen dozu Loiuagaz?

Nik Loiu bizitzen jarraitzen dot, Lauroetan bizi naz. Jendea nahiko ezagutzen dozu betidanik, eta adibidez, zaharxoekaz hitz egiten dozu eta beraientzat be, oso inportantea da. Nire ustez, Athleticen jokatzeagaitik ez dozu zure bizimodua aldatu behar. Oso pozik bizi naz Lauro ikastola ondoan. Halan be politagoa izango zan denbora gehiago egotea herrian bertan, jendeagaz. Baina gure bizitza ez da faziila, bidai asko dago eta, ganera, orain familia gehiago dekot eta mutiltxuekaz oso zaila da danatan egotea.

*Gure kanteragaz
bizi behar
dogu,
beharrezkoa da*

Zelako harremana mantentzen dozu Loiuako Larrazabal peñagaz?

Orain harreman gitxiago dekot, familiarekin bakizu... Lehen astero bi edo hiru egunetan handik pasaten nintzen, ea zer egoan, argazkiak



sinatzeko edo ea zer egoan ikusteko. Orain gitxiago egoten naz, ekainean afari bat dekontu eta denak joaten gara, batzarra egiten dogu, eta egun polita izaten da.

Athleticek zelako harremana mantentzen dau Txorierriko Klubeekin?

Normalean zaila da, Bizkaian talde asko dagoz eta Txorierrikoekaz harremana eukitea fazilago izaten da. Lezamatik hurbilago daudelako, baina Athleticek danakaz nahi dau harreman ona euki, eta batzuek bai eta besteek ez, ba, ez da ona be. Ahal dogunean batzar batera joan edo ikastetxe edo ikastola batera, ba ea jendeak zer jakin nahi dauan. Oraingo gazteak zabalagoak dira eta danataz galdetzen dabe.

Athleticen harrobia zelan ikusten dozu?

Oso zaila da jokalaria onak ateratea. 14-15 urtegaz ikusten da jokalaria pilo bat dagozela lehen mailara heltzeko posibilitate guztiekaz eta gero bide horretan galdutako edo bajatu egiten daurik euren jokua, eta akabuan, hain prestatuta eta hain errekurso handiekaz egon behar zara lehenengo mailan jokatzeke... Hainbat jokalaria on egon dira eta akabura bat bakarra heltzen da, eta bat gitxi da. Guk talde bat dekontu, urtero bat edo bi behar ditutana lehenengo mailara heltzeko, gure kanteragaz bizi behar dogu eta beharrezkoa da. Nik uste dot lana oso ona dala, baina kostatzen da zaila dalako gora heltzea eta ondo heltzea.

Uste dozu Euskal Herriak futbolari onak emoten jarraituko dauela Athleticentzat ala atzerritarrengana jo beharko dogu?

Nire pentsamendua nahiko argia da, nik uste dot hemekoak segiduko dogula, oso inportantea dala eta 102 urte darogaz eta holan jarraitu beharko dogu. Igual ezin da urtero goian egon, baina sailkapenean erdian egoteak bere meritua deko. Orain Madrilera eta Bartzelonara presuestu handia daukie eta gu euren pareko gabilta borrokatzen eta nahiko inportantea da euskaldun guztiontzat.

Ze ezbardintasun igarri dozu Txetxu Rojoren eta Jupp Heinkesen lanaren artean?

Nik uste dot danak dekiela apur zeozer ezbardina. Oso zaila da esatea zer, baina Jupp aurten etorri da bere taldeagaz, Juanjo edo Angel Vila eta atezainen entrenatzaileagaz be, eta beste era bat daukie entrenatzeko. Iaz Txetxugaz beti egon gara bardinak, Manolo, Jose Angel... eta aurten aldaketa batzuk egon dira. Gu beti moldatu behar gara, badakizu, maisu

barria dator eta asmatu behar dozu eta gauzak ondo ateratzen badira, ba askoz hobeto.


Urte batzuk barru, futboleko jokatzeari uzten diozunean, entrenatzen jarraitzea pentsatu dozu?

Bai, halan espero dot. Nire asmoa da amaitu eta segidan, beno, itxarotea apur bat disfrutatzeko, eta gero nire asmoa entrenatzailea izatea da. Ez dakit zein arlo, ezta zein mailatan, baina mutiltxuekaz entrenatzen segitzeko asmoa deko. Egia esan, bulego baten egotea, hemen egon eta gero, oso zaila da.

Zer egiten dozue Athleticen jokalaria Lezamako instalazioetan? Kontaiguzu egun bateko lanaldia.

Lezamara bederatzi eta erdietan heltzen gara, entrenamendua hamar eta erdietan izaten da eta tarte horretan beroketa eta estiramendu ariketak egiten doguz. Gero entrenamendua hasten da ordu bat eta erdi edo bi ordu izaten da kanpoan eta ondoren barruan gimnasia eta beste entrenamendu mota batzuk egiten doguz.

Hemengo mutil bat izatea eta Athleticen jokatzea amets bat da, oso polita da benetan





SEMENTE FISHON
KIROLETAKO ZAINKETA
1919de

Nacha & Aitziber
Birkirioa

Pamplona, 6
48176 ZAMUÑO

telefono 94 403 72 81



ARTIZAR
ENMARKAZIO TAILERRA

Justo Aluria, 3
Tfn. 94 453 01 50

48150 SONDIKA
Bizkaia

Gabon zoriontsu
eta osasuntsuak
opa deusueguz



Jose Maria Quijano
Botika

LAHENDAKARTE LAGUNA, 1 - 48100 BILBAO

Amaierarako badira ordu bat eta erdi edo ordu biak eta etxera goaz bazkaltzera edo.

Zelako emaitzak espero dozuz zeuk Athleticentzat Kopan zein Ligan?

Emaitza normalak espero dodaz ze denbora asko pasatu da eta konpetizio horietan ez dogu egin gauza handirik eta jendea dago itxaroten ea egiten zeozer handia dogun Kopan. Oso polita litzateke final batera heltzea, jendearentzat eta guretzat be bai. Eta Ligan gauden postuetan segiduz gero, zortzigarren bagaude, nik uste dot ahaliko gendula sartu European amaieran eta hori oso garrantzitsua da Athleticentzat. Konfidantza badekogu eta gauzak hasi dira urtetan nahiko ondo, eta zergaitik ez daurie segiduko holan? Egin behar dana da borrokatu, lan asko egin behar da.

Ze toki deko euskarak Aitorren bizitzan?

Etxean beti egin dogu euskeraz eta, ganera, umetxoekaz eta. Nire ustez, oso garrantzitsua da eta holan segidu behar dogu.

Zer egin behar dogu Euskal Herria euskalduntzeko? Eta Athletic euskalduntzeko?

Zaila da esatea zelan egin behar dan lan. Nire ustez, jendea animatu behar dogu berba egiteko, euskera oso garrantzitsua dala hemen bizitzeko eta ea danon artean konsegiduten dogun eta handiagoa egiten dogun euskararen eremua.

Athleticen bagagoz zazpi euskaraz hitz egiten dogunak eta batzuk hasiko dira euskaraz be hitz egiten. Jendeak nahi dau euskaraz ikasi eta oso normala da, ze Bizkaian bizi gara eta hemen euskaraz egin behar da.

Zer deritzozu euskara hutsezko Txorierriko aldizkari barri honi, Aikorri?

Suerte eukitea opa dotzuet. Nik uste dot jendeak nahi dauela zeozer hemekoa eukitea, Txorierriko barriak, ze eskualde nahiko handia da eta proiektua polita da eta danon artean egingo dogu ahalegina holan izan daiten.

*Nire asmoa
entrenatzailea
izatea da.
Mutiltxuekaz
entrenatzen
segitzeko asmoa
dekot.*



Galdera laburrak

Bazkari bat

Arroza

Liburu bat

Los pilares de la tierra

Filme bat

Gladiator

Bertute bat

Umildadea

Heri bat

Loiu

Akats bat

Faltsua izatea

Musikagile bat

Benito Lertxundi

Kirolari bat

Miguel Indurain

Izen bat

Izaskun

GAMINIZ
RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudioako Parke Teknologikoa Tel: 94 431 70 25
Cesario 212 E-mail: gaminiz@euskalnet.net
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA) www.gaminiz.sabando21.com

OKINDEGIA - DASTALEKUA

Aratzalde, 64
94 455 50 36

48196 LEZAMA

LEKE'S **JATETXEA**
S.L.R.

LEKERIKA BILBAO

Txorierri etorbidea, 2
48170 ZAMUDIO
Bizkaia
Telefonoa 944 543 894

*Zorionak eta
urte barri on
gure bezero guztioi*

Zer deritzozu Aikor aldizkari barriari?



Xabier
SONDIKA

Ondo dago, ilusioa egiten dñt. Ni Txorierrin bizi naiz eta herri aldizkari bat edukitzea nahiko nuke.




Olaia,
ZAMUDIO

Ederto. Bazen garaia, hainbeste dekoguz erderaz. Gogoia dekot aldizkaria kalean ikusteko.




Ester
SONDIKA

Oso ondo ikusten dut, euskera zabaltzeko beharrezkoa da. Euskera komunikabideetan egotean jendeak euskera ikasiko du.



Olga
LARRABETZU

Oso ondo deritzot aldizkari barriari. Guztiz beharrezkoa dala uste dot Txorierrin baten horrelako proiektu bat.



Juan Jose
LARRONDO

Ondo iruditzen zait euskaraz bada, ikasten ari garenontzat, primerakoa. Euskeraz irakurtzeko aukera paregabea iruditzen zait.



Mari Karmen
ZAMUDIO

Ondo deritxot. Euskaraz dakigunontzat oso ondo dago, eta ez dakienek aldizkaria irakurtzeko, ea ikasten daberen.

HARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela



Inurrikoetxe, 7 94 455 89 41 tlfnoa. LARRABETZU

EROSLE //



*Zorionak
eta
urte barri on*

LARRABETZUKO EROSLE. Iturribo, 2-3. Larrabetzu

Gorantzaileak taldea 35 urte dantzan

Umetatik euskal dantzak ikasteko aukera denon eskura

Arrate Diez

Sondikako Gorantzaileak taldeak 35. urteurrena ospatu du aurten. Gaur egun, dantza taldearen ardura Fernando Ibarzabalek, Emeterio Llonak eta bere alaba Izaskunek hartu arren, aipatu beharra dago hainbat monitoreren laguntza duela hirurogei dantzari osatutako Txorierriko talde honek.

Entseguak astean bitan egiten dituzte, eguazten eta barikuetan, elizako lokaletan. Gehienak Sondikakoak dira, baina badago Derioko jendea ere. Normalean, inguruko herrietan dantzatzeko dute, baina, arduradunek esan digutenez, Bizkaiko zein Euskal Herriko dantza egunetako zitetara ez dute kale egiten. Hala, segun eta zelako ekitaldira doazen, batzuetan talde guztia doa eta besteetan, aldiz, hamasei dantzari osatutako taldea.

Lau urtetik aurrerako umeei dantzak ikasteko aukera eskaintzen die Gorantzaileak taldeak. Hala ere, gaur egun umeak dantzak ikasteko prest badaude ere, ez dago lehen dantzarekiko zegoen sentimendua. Dantzak ikasterakoan, umeei ezagunagoak egiten zaizkie abestiagatik dantzaren izenagatik baino. Gorantzaileak harremana du Bizkaiko dantzarien federazioarekin eta Txorierriko beste dantza taldekoekin ere lotura estua du.



Gorantzaileak Derioko alardean

Abenduaren 30ean Derioko alardean parte hartuko dute. Urtero legez, neska-mutilak eta umetxoak arituko dira dantzan beste talde batzuekin batera. Normalean, beste herri batera dantzara doazenean, haiek esaten diete zer dantzatu behar duten ekitaldi horretan. Herrian bertan dantzatzeko dutenean, ordea, erabakia arduradunek hartzen dute. Euskal Herri osoko dantzak ikasten dituzte, esaterako, Nafarroako soka dantza, Gipuzkoako uztai haundi dantza, Arabako Laguardiako jota eta abar. Gabonetan ere, Gorantzaileak taldekoak Sondikako kaleetan barrena ikusteko aukera izango dugu kaleko giroa animatzeko prest.

1999ko dantzari eguna

Gorantzaileak taldekoek ilusio handiz gogoratzen dute 1999an antolatu zuten Dantzari Eguna. Herri guztia lanean jarri zen, egun hartako ekitaldiak prestatzeko. Guztira, hirurogei autobus heldu ziren Sondikara eta aparkalekuak eta azpiegitura egokiak prestatu ziren, dantzariak ahalik eta erosoan egon zitezen. Ospakizun hau hiru asteburu ezberdinetan antolatu zen. Asteburu batean Lezaman eta hurrengoan Derion, jota erakustaldia egin zuten. Sondikara, batetik, Beti Jai Alai dantza taldea hurbildu zen, eta bestetik, ekitaldi nagusian Bizkaiko dantzari guztiak futbol zelaian bildu ziren. Honez gain, antzinako erropekin egindako desfilea ere burutu zuten. Taldekideen arabera, oso esperientzia polita izan zen hura, nahiz eta aurretik egin beharreko lana oso handia izan.



GELTOKI
BAR-CAFETERIA

Erremerterri k., 8 - 944531183 ifnoa. SONDIKA.

Geuk asmatutako pintxoak

Iberiko mota guztiak (Urdaiazpikoa, txorizoa, solomoa eta saltxitxoa)

Mantxako gazta

Patata tortila (8 mota desberdin)

JOSUNE JANARIDENDA
GarraioItza, 74 - 94 455 62 48
48196 LEZAMA

*Lorionak geure
bezero guztioi*

Larrabetzuko uriek 625 urte

Abuztuaren lehen egunean bete zituen Larrabetzuko uriak 625 urte. Eta ez da data makala, izan be uria sortu zanetik hona hainbat kontu pasatu dire gurean. Horregaitik behar bada be, 625 urteok ospatzeko, "atara kontuek" izatea hautatutako lelo nagusia.

Patxi Gaztelumendi

Erraz esaten da, baina 625 urte pasatu badira be, ospakizun urtea ez da hain errez pasa. Izan be, makina bat ekitalditxu antolatu da gurean, 625. urteurrenako antolaketa batzordeak eskutik burutuak danak. Batzordea, Arrekikili euskara elkartearen ekimenez sortu zan, kultur etxean egindako batzar batean, eta bere ardura izan da 625 urteok ospatzea.

Ospatzea; jaiagaz batera, ondo pasatu eta partehartzeagaz lotu gura izan deurie 625 batzordekoak. Herri ekimen moduan sortu eta etorkizunari begira gogoeta egitea izen da euren asmo nagusia.

Abuztua ekitaldiz josia

Ofizialki abuztuaren 1a zan egun nagusia, eta egun hori modu bereziz ospatu zan urien. Arrastien umeentzako historia tailer bat antolatu zan, batzordeko kide batek ipuin baten irakurketa burutu ostean txokolatada izan zan guztientzako. Larrabetzuko historiari buruzko hitzaldiaren ostean barriz, ospakizun bolanderak bota ziren zerura.

Abuztuan 10an barriz, bertso eskolakoak sortutako kopla sorta zala aitzakia, astoa eta gurdie jan eta edanagaz ondo hornitu eta auzoz auzo kopla kantari abiatu ziren larrabetzuarrak. Herriko plazan hasi, Bersoara, handik Lezamako muga dan Sasinera, Barrangoetxetik Loroñoetara, Loroñotik Gaztelure, eta Gaztelutik Goikoelezaldera. Kopla kantari, trikitixagaz batera arrasti osoan ibili ostean, urira barriro be. Oso egun polita hau benetan.

Biharamunean herriko jaiak hasien zirela eta abuztuaren 11 be egun handie izan zan urien. Egun guztian zehar hainbat ekitaldi burutu ziren, baina aipatzekoa da plazaondoan egindako herri bazkaria. Gauean kontzertu bategaz amaitu zan egun osoko jai giroa.

Atzo, gaur eta bihar

Ekitaldi bitxi bategaz bukatu da urteurren ospakizunen urtea. Larrabetzuko paraje ezberdinetatik egindako zapatu goiz bateko ibilbideagaz. Hasi plazan hasi zan Sabin Aranak egindako 10 minututako hitzaldi historiko bategaz. Ostean Jose Luis Barrenetxeak, ibilbidearen erdire edo datu estadistikoen azterketa bat egin zuen.

Eta amaitu aurretik, Torreko baserrien parean edo, Larrabetzuko urein bista ederrak aurrean zirela Iñaki Barzena ekologista eta unibertsitateko irakasleak etorkizunari buruzko gogoeta egin zuen. Industrialdeen eragina aitzakia hartuta, Larrabetzuren geroaz berba egin zuen.



Larrabetzuarrak koplak kantetan auzoz-auzo

Iraila-urria: hitzaldiak eta azoka

Uda jai giroagaz lotzen bada be, ikasturte barriagaz batera 625. urteurrenako batzordekoak, ekitaldi lektiboagoak antolatzen hasi ziran; hitzaldi sorta ederra, herriko artisauek eta baserriarren produktuen azoka, erakusketa... Hitzaldi sano interesgarriak egin ziran Kultur Etxean. Jesus Mari Irazu bertsolaria herri txiki-txiki euskarari buruz aritu zan Agurtzane Elorduigaz, Jakoba Errekondok Zeraingo herriko esperientziari buruz, Iñaki Martinez de Lunak ordea Euskal Herriaren geroa aztertu zuen.

Larrabetzun badago kezkarik etorkizunari buruz, eta 625. urteurrenako batzordeak atzera begira moduan, aurrera begira be jarri du bere jarduna.

Baie, duda barik, aurtengo ekitaldi nagusie Larrabetzuko plazan antolatutako bertoko produktuen azoka izan zan. Baserrietako produktoak, danak larrabetzuarrak eta plaza bete postu. Zer jan eta zer edana ez zan faltatu eta jai giro ederra. Baserriko altzarien erakusketa eta erromeria giroa. Eta amaitzeko bertso triki kalejira-poteo ederra, bertso-lariak giro ona jarriaz tabernaz taberna.



Euskararen aldeko hitzarmena

Talde, elkarte eta eragile sozialak bat datoz

Fernando Olabarrieta

"ZORRIZKETAN" Lezamako Euskara Taldeak bultzatu eta antolatuta, bertoko eragile sozial guztiekin EUSKARAREN ALDEKO akordioa lortu gurarik, afari batera gonbidatu genituen taldeetako bi edo hiru ordezkari. Asmo horrekin, Goitoltza auzoan dagoen herriko txokoan elkartu ginen jan-edari gozoz beteriko mahai inguruan eta giro onean, Zorritzketanekookin batera honako eragile sozialen ordezkariak: Parrokia, Udala, Eskolako Irakasleak, Eskolako Guraso Elkartea, EAJ/PNV alderdia, Batasuna alderdia, EGI gazte taldea, SEGI gazte taldea, Jai-batzordea, Pelota eskola, Bizia Kirol taldea, Baserritarren Alkartea, Oxangoiti Kultur taldea, Euskal Herrian Euskaraz taldea, Dendari eta tabernariak (etorri ez zirenak, baina euren euskararekiko atxikimendua eta afari-batzar honen gaineko oniritzia adierazi zutenak: udal langileak, Gurutze Dantza taldea eta Gailur Mendi taldea).

Eta zergatik guzti hau? Aitzakia hauxe izan zen: aurten ospatzen dela Europako "HIZKUNTZEN URTEA", edo, teoriarik behintzat, Europak begirada sakonagoa eta espezialagoa botako diela aurten hizkuntzei (eta euren artean euskara be Europako beste hizkuntza bat da, ezta?). Baina askotan horrelako ospakizun ofizialak oso urrun geratzen direla-eta, guk begirada hori bertora eta hurbilera ekarri gura izan dugu, hau da, denbora apurtxo bat dedikatu gura izan diogu Lezamako errealitateari, euskararen egoeraren inguruan eztabaida eta konpromisoa sortaraziz.

1996an, Lezamako Udalak aginduta "SIADCO" enpresak egin zuela Lezamako azterketa soziolinguistikoa. Lan bikain horren azken ondorioa hauxe zan: Lezaman euskaraz berba egiten jakin badakiela biztanleriaren %80ak gutxi gora behera, eta, ostera, euskaraz egin kalean %17ak egiten duela.

Gaur, milurteko eta gizaldi berri honetan, orokorrean aurrera pausu asko eta inportanteak eman direla euskararen alde ez dago dudarik. Baina, gure ustez, euskararen erabilera Lezaman lehengo moduan edo txarrago dago.

Umeek: ikasgelan dena euskaraz ikasten dute, baina errekreazio urtenagaz batera espainolera pasatzen dira (maistra-maixuek hala izan ez dadin ahalegin handiak egin arren).

Nerabeek: ikasgelan umeei gertatzen zaien gauza bera gertatzen zaie, eta kalean

ere, gazte bi elkarregaz euskaraz berba egiten entzutea oso-oso arraroa da. Gazteek: koadrila batzuk edo espazio batzuk kenduta, espainola da nagusi euren artean ere.

Helduen artean be, lagun talde txiki eta gutxi batzuk kenduta, espainola da komunikatzeko hizkuntza nagusia.

Gure zaharrek: euren artean gehienek euskaraz egiten dute, baina espainolera pasatzeko erraztasun handia dute (lotsa direlako, edo gutxiago direlakoan pentsatuz, edo ez dakigu zergatik).

Errealitatearen diagnostikoa

Labur esanda, bide honetatik euskararen transmisioa zaharregandik umeengana apurtu egingo dela uste dugu (apurtuta ez badago jadanik), erdara hizkuntzek jan egingo gaituela uste dugu, askoz be indartsuagoak direlako; Lezaman gero eta eus-

kara gutxiago entzungo dela uste dugu, eta entzungo dena gero eta kaskarragoa izango dela. Hauxe da gure diagnostikoa. Hauxe da guk ikusten dugun errealitate beltza.

Eta honen aurrean, zer? Edonork esan leza ke: "hori ez da nire arloa, nirea futbola da, edo pilota, edo txikito batzuk saltzea, edo paperak hizkuntza ofizial bietan idaztea... Jakin badakigu, guk be, gure arteko eta ordezkatzeko ditugun taldeen artean egoe-rak, zereginak, zirkuntantziak, ekintza eta ardura publikoak guztiz ezberdinak direla, baina hala eta guztiz ere, harrokeri barik eta inor gutxiagotzat jo barik, inoren lana mesprezatu barik, guk mahai gainera botatzen dugun hordagoa hauxe da: gure ustez: edozein pertsona baten zeregin terrenalaren gainetik hizkuntzaren bat dagoela esaten dugu; besteakz edo norbere buruagaz komunika-

zio sistema da, gizakion gauzarik inportanteenetarikoa. Gure ustez, hizkuntzak beste gauza guztien gainetik markatzen du herri edo giza talde baten sena. Gure ustez, hizkuntzak inportantzia antropologiko sakona dauka, eta ez bakarrik politikoa eta soziolinguistikoa. Gure ustez, hizkuntzak markatzen ditu hitzunen ezaugarri psikologiko batzuk be. Gure ustez, geure eguneroko zereginetan murgilduta, hizkuntzari ez diogu ematen benetan daukan inportantzia.

Eta honen aurrean, geure esku dago: edo gehien bat espainolarekin komunikatu, euskarari astiro-astiro "amatetan" itxiz, edo, zerbait egin, ahaleginak egin (askotan diskriminazio positiboa erabiliz) Euskal Herriaren arima den Europako hizkuntzarik zaharrenean berba egiteko eta geure artean komunikatzeko.



Goitoltzan egindako afarian giro ederra egon zen



ENVIOS URBANOS, NACIONALES E INTERNACIONALES

Zorionak!

SANTO DOMINGO FLORIDEA, 5, EDIFICIO FLOR - 48160 DERIO
TEL. 944 545 001

LARRABETZUKO ESTANKOA

Tabakoa, prentsa, loteriak, kiniela...

Zorionak eta urte barri on

Andra M^a kalea, 1. LARRABETZU.

Zamudiotik Akonkaguara

Zamudiotar mendizale bik Akonkaguara igotzeko espedizioari ekingo diote urte hasieran. Iñigo Egiak eta Iker Eguzkizagak hila-betez Hego Ameriketako Andes mendikateko tontorrik altuenera heltzeko asmoa ilusio handiz hartu dugu Txorierriko biztanleok.

Noiz hartuko duzue Andeetarako bidea?

Urtarrilaren 4an Bilbotik Madrilera goaz, gero Buenos Airesera joateko. Behin han egonda, Mendoza izeneko herrira goaz hegazkinez, 1.000 km-tara baiatgo hau Buenos Airesetik. Espedizioa, beraz, Mendozan hasiko dugu. Mendozatik Vallecitos izeneko lekura goaz. Andeseko toki honetan aklimatazioa egiten egongo gara aste baten. Bertan 4.000 metroko mendi batzuk igongo ditugu eta 5.000ko bat.

Behin aklimatazioa eginda, Mendozara itzuli eta handik kanpo basera goaz egun biko treking bat eginda. Kanpo baseak 4200 metroko altuera du. Gauza guztiak ondo badoaz, mendira igo eta bajatzen hamabi egun emango ditugu guztira.

Kanpo basetik kanpo 1 eta kanpo 2 egingo ditugu. Kanpo basetik lehen kanpora igo behar dugu, hara materiala eroateko hiru bidaia eginez. Hala, hirugarren aldiz igotzean, lehen kanpotik bigarren kanporako bidea hartuko dugu. Behin, bigarren kanpoan gaudenean, hortik tontorrera igotzeko saioa egingo dugu.

Zelako prestakuntza egin duzue espedizioari aurre egiteko?

Mendira joan gara, baina bakoitza bere aldetik egin du prestaketa. Kepa Lizarraga Federazioko medikuak asko lagundu digu aklimatazio aholkuak emona. Akonkaguak 6959 metro ditu eta gure asmoa oxigeno bonbona barik egitea da, ez dugu uste beharrezko denik. Guk oxigenorik ez dugu erabiliko, gure asmoa baldintza horrekin igotzea da.

Altuera eta hotza dira arazorik larrienak. Aklimatazioa ondo eginez gero, eta norbere gorputzak aguantatuz gero, gora heltzea posible da. Dena dela, hori misterio bat da eta han egon arte ez dakizu zer ger-



Ikerrek eta Iñigok espedioko kamisetak atera nahi dituzte

tatuko den. 4.000tik 5.000ra ondo bazoaz, hortik gora ondo egon zaitezke.

Han orain uda da baina altuera horretan haizea oso gogorra da eta “haize zuria” izeneko fenomeno dago, elur xehearekin eta eguraldi txarrekin nahastutako haizea da.

Eguraldi ona egiten badu, 5.000 metroko altueran zero azpitik 15-20 gradutara egotea normala da. Baina eguraldiak txarrera egiten badu, temperatura ez da inportanteena, baizik eta tenperaturarekin eta hai-zearekin gorputzak duen sentsazio termikoa. Gorputza 20 edo 40 gradutara egon daiteke zero azpitik. Beraz, hotz hori aguantatzeko material egokia behar da eta oso garestia da.

Horrelako tenpereaturatan egoteko material berezia zelan lortu duzue?

Materiala oso garestia da, orain arte geneukana osotu behar izan dugu. Material teknikoak merkeagoa da erropak baino. Bakoitzak 700.000 pezetako materiala behar dugu. Gauza batzuk bageneuzkan baina erropak osatzeko ia 200.000 gastatu behar izan du bakoitzak. Bilboko Iris mendirako material dendan erosi ditugu erropak.

LEJARRENE
JATETXEA



GARAJOLTZA AUZOA, 102 - TFNOA: 94 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

ZANUDIOKO ESTANKOA

 **BIRITXI**
Hicapaindologia eta Estetika

Herriakalea, 6
48176 ZAMUDIO

Teléfono: 94 400 72 80
94 400 72 82

HEMEN ZURE PUBLIZITATEA
94 452 34 47

SONDIKA LIBURUDENDA

*Irakurgarazko, irakurleentzako, irakurleentzako, irakurleentzako, irakurleentzako,
irakurleentzako, irakurleentzako, irakurleentzako, irakurleentzako, irakurleentzako.*

**ZORIONAK ETA
URTE BARRI ON**

Mika Zarra, 2 - Tocoa - 944221677
48190 SONDICA

Errotapione bizirik

Badago Loiu bost kilometro inguruko erreka bat, sano garrantzitsua herriko historiari begiratzeko orduan. Antzinatik Lauroetako erreka ardatza dala, eta bertara datozen beste erreka txikiagoak aprobetxatuz, edo urbide berezitatik edo kaneletatik ura bideratuz eta anteparak betez, uraren indarrari etekina ataritzen zeurien makina bat errotarik.

Belen Gana

Orain amaitu berria dogun XX. mendeko 60. hamarkadararte, Lauroetatik Katearaino, bere bost kilometroko ibilbidean doan erreka ondoan, 10 errota etxe lanean aritu ziren.

Erroten izenak, erreka bidea segiduz gero, goitik beherako ordenean, honeexek dira: Goirengoerrota (edo Errotapione), Itsuerrota (edo txistuerrota), Azpiluetako 2 errota, Laskitorta, Kanposeneko errota, Bekorta, Urikorta, Errotatxu, Behikorta

Jakina danez, errota honeetan, artoa eta garia ez eze gauduentzako pentzue egiteko, garagarra, ailorbea, babea eta bestelako aleak be ehotzen ziran garai hareetan.

Denporea aurrera doa eta ez Loiu ez Txorierrin, ja ezta garirik ereiten eta nekazal sindikatueta errota elektrikuak ekarri zituezanetik gauduentzako alea bertan ehoten eta irintzen dabe.



Errota etxearen azpitik errekatxo pasaten da

Baina taloa, geuregeurea dogun jaki gozo hori, eguneroko eta oinarritzko janaria izatetik, ospakizun berezietarako izatera pasatu da. Halanda be, errota guztiek errentabilitatez segiteko lain ez dabenez ematen, gure herriko errotak be, lanbide hori utzi behar izan zaurien



Jose Gastañagaren Errotapione funtzionamenduan

eta gaur egun, hamar errota horietatik bat bakarrik dago beharrean, eta bera GOIRENGOERROTA dogu.

Jose Gastañaga

Jose Gastañaga da bere jaubea eta bere prest egoten da, aurretiaz deituz gero, bere errotaren nondik norakoak konteteko; ura nondik hartu eta zelan aprobetxaten dauen, errotan erabiltzen diran tresneriaren izenak ikasi eta ikusiko doguz, artotik urunera bitarteko prozesua ikusiko dogu, zer dan bahea, galbahea, errotarria, sifloia, silarrria, bobeda, artxilea eta errotarrie prestatzeko teknika be erakutziko dosku gura izanez gero, ze berak prestatzen dau bere ehotzeko harria, arto urune leunago eta finago urten daiten.

Josek esan doskunez, bere errota da Loiu bost kilometro inguruko erreka bat, sano garrantzitsua herriko historiari begiratzeko orduan. Antzinatik Lauroetako erreka ardatza dala, eta bertara datozen beste erreka txikiagoak aprobetxatuz, edo urbide berezitatik edo kaneletatik ura bideratuz eta anteparak betez, uraren indarrari etekina ataritzen zeurien makina bat errotarik.

Super BM

Mikel Deuna, 1. DERIO Pago kalca, 1 ZAMUDIO

Forionak eta urte barri on

IFA

DAÑOBEITIA JANARIDENENDA

ZEMBIJUA ETA KALITATEA

Forionak eta urte barri on

Aretxalde, 62 - 94 455 50 47
48116 LIZAMA

Azkenik, Derion ere frontoiak

Arrate Díez

Inauguraziorako epea oraindik zehaztuta ez dagoen arren, Derioko kiroldegian frontoi berri bi eraikitze lanak laster amaituko dira. Derioko biztanleek udal frontoiak edukiko dituzte profesionalentzat zein amateurrentzat. Hemendik gutxira, derioztarrak, ondoko herrietara joan beharrean, herrian bertan jokatu dute pilotan.

Frontoi barriak urte hasieran inauguratu nahi ziren, baina azken orduko arazoak direla eta, ez dakite zehazki noizko egongo diren prest.

Sondikan egin zen modura, inaugurazio ekitaldietarako pilotari profesionalak etortzea nahi dute eta, ahal izanez gero, inaugurazio partidua telebistaz ere ikusi ahal izango da. Hala ere, inaugurazio ekitaldiei oraindik forma eman behar zaie.

Frontoi bi

Kiroldegiko instalazioak frontoi bi eraikitze lanak egokitu dira. Bata, 36 metroko frontoi luze bat da, erregelamenduzko frontoi baten neurriak dituena. Bertan, lau l'erdiko partidua eta eskuz binakakoak jokatu ahal izango dira. Beste frontoiari, entrenamendurako frontoia deitzen diote. Honek 18 metro ditu eta bere erabilera bertako biztanleentzat pentsatuta dago. Honez gain, Derion eskupilotan jokatzen duen jendea dagoenez, pilota eskola eratzeko asmoa dute. Orduan, kiroldegia leku aproposa izango da entrenamendu eta



Erregelamenduzko frontoia.



Frontoi txikia laster erabiltzeko prest.

partiduetarako. Pilota munduan aritu nahi duen jendearentzat dago pentsatuta.

Frontoi zaharrak

Lehenago Derioko seminarioan frontoi batzuk zeuden, baina berrikuntzak egiterakoan bota egin zituzten. Frontoi hauek oso zaharkituta zeuden eta desagerrarazi zituzten. Geroago, beste frontoi txiki bat egin zuten Derion, baina udal eraikin berriarekin hori ere desagertu zen. Beraz, jendeak frontoi baten beharra zuen.

Derioko jendea Zamudioko frontoira joaten da batez ere; beste batzuk, ordea, Sondikara eta Lezamara hurbiltzen dira partidua jokatzera.

170 milioi

Orain arte egin diren lanetarako 170 milioiko inbertsioak egin dira, baina oraindik ez dago guztiz amaituta. Inguruko herri guztiek udal frontoiak dituzte; beraz, bada garaia Txorierriko herririk populatuena bere frontoia eduki dezan. Kiroldegia asmoa urtero bizpauri partidu profesional antolatzea da.

BAR TXINTO

Gozari bariatuak - Razioak
Luntxetan Espezialitatea - Enpresetarako zerbitzua

Guri, 1
Tel.: 94 453 00 81
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Joseba Garrido Balboa

KALITATEKO
EUSKAL
OKELA



AITOR MADARIAGA
HARATEGIA
Mikel Zarate, 2 SONDIKA

EUSKAL LABEL

Maritere sukaldariari omenaldie

Larrabetzuko eskoletako jantokia leporaino bete zan, Mari Tere sukaldariari, 25 urtean eskoletan biharrian ibili ostean, eta jubilazioa hartu deuela eta egindako bazkarian. Danatarik egon zan, berba politek, plakak, bertsoak, musika eta, batez be, giro ona. 25 urte sutean emon eta gero, pena handiagaz baina pozik ospatu eurien Larrabetzu eta inguruetakoko ikasle, guraso, ikasle ohi eta irakasleak.

Jose Valdueza derioztarrari ongi etorria

Bost urte ta hiru hilabetez hainbat gartzelatan egon ondoren, Valdueza Deriora heldu zan azaroaren 26an. Goizeko 3etan ailegatu eta harrera egin zioten. Omenaldia, berriz, abenduaren 2an antolatu zuten, herri bazkari eta guzti.

Zamudioko batzokia barriztaturik

Urriaren 21ean, batzokiaren itxura barria ezagutzera emoteko asmoz, inaugurazio ekitaldia ospatu zan eguerdian. Lokalaren sarrera aldatu, taberna pistatxo kolorez margotuta, jangelako zein lokaleko kalefazioaz gozatzeaz gain, luntx ederra jateko aukera eskaini eutsien hara hurbildutako guztiei.



Monika Martinez estraditatu

Monika Martinez larrabetzuarra abenduaren 10ean estraditatu zuten. Garzon epailearen aurretik pasatu ondoren, Alcalá Mecon izan da gartzelaturia.

Txomin eta Urbil Artola Zamudion

Abenduaren 14an, gaueko 10etan, Zamudio dorretxean Txomin eta Urbil Artolaren kantaldia izan zan, Lagatzuk antolatuta.



Larrabetzu

- Abenduak 27: Donostiako Zientzia Museora irteera.
- Abenduak 29: San Mamesera Euskadiko Selekzioa ikustera.
- Abenduak 30: Euskalduna Jauregira zirkua ikustera.
- Urtarrilak 3: «Sarri gure artean» hitzaldia Iñigo Aranbarriren eskutik.
- Urtarrilak 5: –Euskaldunara Markeline antzerki taldea ikustera. –Musika gaua. Petti, Onddo... eta dj-ak.

Lezama

- Abenduak 27: «Adintsuen osasuna» berbaldia. A. Bidaurreazaga eta I. Lizaso.
- Abenduak 28: «Euskararen sendabelarrak». K. Zuazo.
- Abenduak 29: «Lezamako euskeraren osasuna». Hitzarmenen sinadura, Udaletxean.
- Abenduak 29: San Mamesera Euskadiko Futbol Selekzioa ikustera.

Zamudio

- Abenduan: Argazki erakusketa. Liburutegian.
- Gabonetan: «2001 Liburutegiko Odisea» sari banaketa. Liburutegian.
- Abenduak 26-30: Zamudioko UGP/PIN, Kiroldegian.
- Abenduak 28: Itzal Antzerkia eta «Olentzeroari gutuna» lehiaketaren sari banaketa.
- Abenduak 31: Kotilloia.

Derio


- Abenduak 30: Euskal dantzen erakusketa.
- Urtarrilak 5 eta 6: «XVI. Gabon Kantak». Abesbatzak.
- Urtarrilak 4-11: «Euskal Herriko Musika Tresnak» eta «Bizkaiko Trajeak» erakusketak.

Sondika

- Abenduak 28: Gasteizko Izotz Jauregira Txangoa.
- Abenduak 29: Txiki-Eguna 2001.
- Urtarrilak 9/ Martxoak 13: Komunikazio positiboari eta autoestimuari buruzko ikastaroa.

Loiu

- Abenduak 28: Euskararen eguna. «Kaioa eta Katua» antzezlan. Txamuskina taldea.
- Abenduak 28: «XVI. Gabon Kantak». Abesbatzak.
- Urtarrilak 4: Euskaldunara Markeline antzerki taldea ikustera.



Larragoiti (Zamudio)

Argazkia: Joseba Apeztexea




kultu

ra sortzen dugu



ra

BILBAO 700 • III MILEUIM



Someren hartzalzen dugu eta zure eskuelan jarzen ditugu obra
paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.
Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Hau da gure kultura.